



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasun erreala edo IV. Reich-a

ALEMANIAK GIDATUTAKO Europar Batasunak (EB) ez zuela gustuko Syrizarren gobernu berria, bagenekien. Atenasi ez zizkiola gauzak erraz jarriko eta ahalaz Europako beste zenbait herrialdetan bulztatutako estatu kolpe leun bat emango zuela gobernu aldaketa inposatuz. EB saiatu da, Berlinek *korralitua* bortxatu du eta batasuneko bazkideen artean inoiz ikusi ez ditugun irainak eta mespretxuak egin zaizkio Syrizarren Gobernuari. Baina Alexis Tsipras bizirauteko gai izan da estrategia demokratikoa defentsa arma moduan erabiliz. Alemaniaren enbidoari hamar puxtarri gehiago jarri zizkion. Erreferenduma apustu ausarta izan zen, etxean gobernu indartu eta legitimatu, eta kanpoan, aldiz, haserre piztu eta joko arauak inposatzen dituztenengan mende-ku gosea sortu zuen.

Greziar krisiak garbi utzi du zer den EB erreala. Ez dira garai onak federalistentzat, jakin bagenekien Europar Batasunaren demokrazia urria dela, baina federalismoa inoiz agendan egon bada orain ofizialki ezabatu da. Mundu guztiak daki lortutako akordioak zigor asko, eta elkartasun eta lankidetzak gutxi eskaintzen duela

Yanis Varoufakisek azaldu bezala, Eurotaldean Alemaniak hitz egiten duenean gainontzekoak isildu eta obeditu egiten dute. Berlinek bota zuen hordagoa, zurrumurruek arabera honelako zeozer: gure baldintza-zigorak onartu ezean, eurotik botako zaituztegu eta hamar izurriteen pareko baldintzak sortuko dizkizuegu. Tsipras izutu eta B planik izan gabe amore eman zuen erreferendumaren aurretiko baldintzak baino askoz gorrak onartuz. Beste behin mundu multipolarren onurak ulertzen ez dituztenen aurpegian zaplaztekoa izan zen. Subiranotasunari eustea edo berreskuratzeko errazagoa da boterea hainbat lekutan banatuta badago, horrela beraien arteko kontrol eta disuasio politikak subiranota-

sun esparru autonomoak sortu ditzake. Adibidez, Latinoamerikako ezkerreko esperientziak nekez izango zuketuen etorkizunik Txina edo Errusia existituko ez balira. Horregatik, zeharka bada ere, Errusiaren aurka egiten denean Mendebaldearen mesedetan, besteak beste, Bolivia, Ekuador eta Venezuelaren aurka egiten da.

Europari begiratuta, greziar krisiak garbi utzi du zer den EB erreala. Ez dira garai onak federalistentzat, jakin bagenekien Europar Batasunaren demokrazia urria dela, baina federalismoa inoiz agendan egon bada orain ofizialki ezabatu da. Mundu guztiak daki lortutako akordioak zigor asko, eta elkartasun eta lankidetzak gutxi eskaintzen duela. Greziaren egoera ekonomiko kaskarra ez da konponduko, okerrago baido. Heleniar estatua asko pobretuko da, pribatizazio prozesu basati bat martxan jartzera derrigortu dute EBk kontrolatuta, horrela Mendebaldetik kanpoko (Txina, Errusia, Brasil...) kapitalen parte-hartzea gutxitu edo desagerraraziko dute. Hau da, Greziaren subiranotasun gutxi geratzen da, baina era berean pribatizazioetarako ez da merkatu librearen araurik onartuko, eta herriari egingo zaion lapurreta merkatuko. José Mujicak, Uruguaiako presidentea ohiak, azaldu bezala akordioa krudela eta kolonialista da.

1871ko alemaniar batasunaren ostean, alemaniar espantsionismoak arrakasta izan zuen intelektual, industrial, militar eta politikari kontserbadoreen artean. Beranduago, 1915ean, Friedrich Naumann politikari liberalak *Mitteleuropa* kontzeptuari lotua Aduanetako Batasun proiektua landu zuen anglosaxoiekin lehiatzeko. Alemania Europako zentroa izango litzateke eta gainontzeko nazioak bere inguruan egongo liriteke subiranotasun ekonomikorik gabe. Ildo horretan, naziek kontinenteko esparru ekonomiko bat irudikatu zuten, non herrialde batzuek soberakinak sortu eta salduko lituzkete –Alemaniak zuzendua Banku zentral eta moneta bakarrarekin–, eta besteak periferia ekonomikoa izango liriteke lehen gaiak eta eskulana hornituz. Egungo errealtatearekin zerikusirik? ■